

ANTZERCI



EVKALAMBERTIAREN
ILEROKOM

== "BEREZI" ==

— "IRI-ITZALDIA" —

A. LABAYEN'ek itzuliak.

"NESKAMEAREN MARMARAK"

LUZEAR'ek idatzitako bakafizketa (gaztetxuentzat).

31'en Zenbakia

1934.—Uzta

BIGAREN BATZALDI TA SARIKETA

Euskal-Antzertiari aufferapen bultzada emateafen Antzerki-batzaldi au zabaltzen da «*Euskaltzaleak*» saritzen dutena ta «*ANTZERTI*»-ren bidez eratua.

BALDINTZAK.

1'go.: Edozein motako ta zer nai gaiz ta mamiz idatzitako antzerki-lanak artzen dira. Ekitaldi bat ala gelagotan, epalkarien iritzian egoki ta antzezgafi izan ezkeror

2'g.: Batzaldi onetara sartu nai duten egileak bidali litzate lanak, luzeena Uria'ren 31'gn. arte zuzenbide au ipiñiaz «*Antzerti*» (Editorial Lopez Mendizabal -- Tolosa) edo ta «*Euskaltzaleak*» (En la Diputación de Guipúzcoa—San Sebastián).

3'g.: Antzerki-lanak jatofak (originales) bitez, norberak sortutakoak eta ez beste izkeratik itzuliaz.

4'g.: Epai-iritzia toki ontan bertan azalduko da ta aren aurka ez dago inora jotzerik.

5'g.: Saritutako antzerkiak «*Antzerti*»-n argitaratuak izango dira ta oni dagozkio jabetza ta eskubide guziak.

6'g.: Saritu gabekoak egileak jaso litzazteke ta eskatu ala biurtuko zaizkie.

SARI AK :

Auek dira eskeñitako sariak:

250 pesetako saria, Antzerki-lan onenari ekitaldi bat ala gelagotan idatzia.

150 pesetako saria, bigafenari.

75 pesetako saria, bakafizketa, aur-jolas edo antzeko lantxo onenari.

25 pesetako saria, bigafenari.

O a r a k :

Egile ta idazleak ez bezate aztu antzerkiok irakurgai ez ezik antzezgafi izan bear dutela; Teatro-kutsua zaiela beafen. Au ez ba'dute ez dute ezer. Teatroa jolasa dala ta ikusleen bafurano irixteko, noiz par, izkirimirien bidez, eta noiz negar, zoritxaren otsikaren indafez, nolanai ere, ez dedila beñere luze ta aspergafi izan. *Antzertiak* bere lege ta arauak ditu ta ez diteke tajuzko antzerkirik idatzi aiek ondo ikasi gabe.

Azkenik, gure antzez-leku geienak txikiak izanik ta antzezleriak befiz duarik lan egiten dutenak, ez bai dira ortatik bizi, idazleai eskatzen zaie antzerkiak egin ditzatela alik eta ikas-efez eta antzez-efezenak

JAKINGAŖIAK.

Antzezlariak opor....

Urte sasoi au atsedean artzeko ohea izaten da. Ofegatik gure antzezlari-talde geienak geldirik daude: "*Dolce farniente'n*" edo. Geienak bai; ez ordea guziak.

AŖasate'n bertako "*Euzko Gaztedi'koak*" Uzta'ren 14'n "*Zanpantzar*" Alzaga'ren iñauteri, iri-antzerkia antzes-tu dute.

AŖasatearok datofen negurako talde bikaña osatzeko bidean dijoaz. Sariketara baldin ba'datoz, uste degun bezela, lanak emango dituzte.

Uzta'ren 22'n Lazkano'ko antzezlari taldeak Ataun'go areto berian "*Neskazar*", au ere Alzaga'ren antzerkia agertuak dira.

Goiefi'n ere euskel-antzer-tia zabaltzen ikustea pozgarri zaigu.

"Teatro Vasco"

Izen onen pean Verdes Atxirika etxeak laister idazti

bat argitaratuko du Nikolas Biar antzerkigilearen lanak bildurik.

Erderaz idatziak dira bañan euzko gaiz eta mamiz tajutuak.

Giar asko ezba'du ere leun eta atsegiña da Biar'en tankera. Bere antzerkiak oso maiz antzeztu dira, euskeraz egiten ez dan abertzale antzokietan.

Antzerki oriei afera ona beŖiro egingo zaiela deritzai-gu, aspaldi ez bai zeuden iñon salgai.

"*Teatro Vasco*" azaldu ala zeatzago azterketa egingo diogu gure iritzia azalduaz.

Radioz....

Ez da lenengo aldia radioz euskel-antzerkitxoak entzuna gerana. Donostia'ko irasaiotatik zetozen. "*Antzer-ti'k* garaiz, leŖo auetan, berri eman zigun. Udararen 18'n lasarte-arok irasai-oz ekin dute: "*Mox, Miss, Xapi!*" antzerkitxo arin eta

polita zutela gai. Lasarte-oriatarak aitatu ezkerro ez dago esan beafik Arozena'tar Andoni zutela buruzagi. Gure adiskide maitearen lana da ori. Zorionak. "A-bi"!

Ernaniafok gutxiago ez izatefen azken ifasaioan antzerkitxo bat esan dute. Alzaga'ren "Asentxi ta Kontxes" elkafizketa. Egiguren eta Toledo andereñoak mintzalari.

Radorako antzerki-lan be-reziak idazten leia diranak ba-dira. Ez bai-da berdin jendeak entzun eta ikustea batera; edo ta entzutea bakañik, ikusi gabe. "Tele" ikuskizuna atzera dago oraindik.

Tristand Bernard parantzetar antzerkigile ezagunak L'illustration'en argitaratuak ditu, radioz bidaltzeko zerbait antzerki. Beste batzuek ere izango dira baztefetan.

Azteazkenoroko euskel ifa-saloetan, noizik bein onelako bat sartu bear lukete.

Entzule.

— Aolkuak —

Idea edo gogai "ba ezpa-koa" dago gure artean antzerki aberkoia danari buruz. Askok usten dute antzerkian ez ba'da aitatzen politika ara-

koa; ez bada esaten, aria eto-ri ala ez, euzkotarak gerala eta ez beste ezer. Gure abe-fia Euzkadi dala edo beste onelako aitopenak; azkata-suna gora ta bera; ta bear ba'da ez ba'dira bizpafru antzez-lagun erailtzen, usten du-te, ura ez dala antzerki aber-koa. Oker au zuzentzearen zerbait esan nai nuke.

Abertzaletasuna zabaltzeko egia da. egin ditezkeela antzerki lan edefak. Ofetarako Tea-troa biderik onenetakoa da. Bañan ez da aztu bear lenen-lenengo baldintza Teatroa'n zur eta neufiz jokatzea dala.

Antzertia adierazle (medio de expresión) indartsua da; au gauza batengatik: jolas arazi, samur arazi, biotzondoa ikutzen dualako. Sentzun gu-zien bidez sartzen da antzer-ti-gala giza soñean, gogora-ño elduaz. Ikuslea beñiz, geie-netan antzoki batera joaten da, oarkabe, aldi atsegin bat igarotzera. Aldarte ortan da-golarik guzia ontzat artuko du: aspefaldia, gogaikeria ez ezik. Beraz, antzerki batean sartzen ba'ditugu itzaldia, ser-moi ondoren, bakafizketa lu-zea emendik, ikasgai aztunak bestetik, sentzun edergoseai ezer eman gabe, ikusle ura asper-asper eginda ez da gelago antzokira joango.

“BEREZI”

Henriette Charasson'en

“Separation” parantzeraz idatzitako antzerkitik
euskeraz

A. LABAYEN'ek itzulia.

EKITALDI BATEAN ANTZERKITXOA.



≡ 1934.—TOLOSA'n ≡

LOPEZ - MENDIZABAL'encan

ANTZEZ-LAGUNAK



Lutxi

Xanti

“ B E R E Z I ”

(EKITALDI BATEAN ANTZERKITXOA)

(Telatu inguruko sukaldetxo bat. Muebletan ezer gutxi; etxea utsik ez dagola esateko aña. Nai izan ezkerro ipiñi ditezke bizpairu mueble zar, aldi batean onak izanak. Oi bat, maia, bi eserleku, sukalde tresna batzuek; estufa bat piztua dagona ta gañean eltzea.

Mai ondoan besaulkian eserita aiton bat anketatik elbarria. Burusian bilduta dago. Jantzia txiro bañan garbia. Bizar zuriduna izan diteke edo sudurpekoarekin beintzat. Betaufekoak ere bai. Erdi lotan edo irakurtzen dago. Xanti da. Bereala sar bedi Lutxi. Beltzez estalia, jantziak antziñako eran oso txukunak. Etxean sartu orduko mantaltxoa jantziko du ta zapatilak.

Beafean dagola ikusi afen egun obeak ta ondasun geiago ezagutua dala igafi bear zaio.

Zirazko zofo beltz bat eta meza liburua dakarzki eskuetan).

LUTXI —(*laztanduaz*) Aspertuko ziñan aitona; ez da ala? Plaza ortan zail bai'da nai dana erosten. Ango jendea! (*Zofoa ustu beza aüfena, ogi, lursagafak aterlaz eta gero esaten joango dana*)

XANTI —Iganderoko leloa degu ori Lutxi.

LUTXI —(*neka-neka eseriaz*) Ezin det geiago! Bostgafen bizitz au goian dago. Biotzak egiten didan taupada!

XANTI —Ez afenguratu (*maitekiro*) Obe nuke igotzeko gauza ba'nintz. (*Lutxi'k ezer esan gabe maite-maite butzuek egiten dizkio arpegian, eskua artu ta laztanduaz*)

LUTXI —(*pozik*) Patatak bost xentimo libra jetxi dira; dozen erdi bat xardina erosi dizkitzut. Ez daude garesti: efea-lean. Zuretzako urdai azpiko xefa eder au peseta batean ta gañera naranja bat.

Pozik egon ziñezke. Eroaldiak eman dit; aldi batean antzo.

XANTI —Ta zuretzako?

- LUTXI —Neretzako? Badakizu ez detala jateko gogo aundirik. Patata prejitu batzuek eta gazta puska batekin naikoa det. (*alaituaz*) Begira Malen saltzaleak lore polit oriek eman dizkit. (*ontzi batean jari bitza*)
- XANTI —Ez det nai izaten neretzat ofenbeste diru xautzea zurretzat mixerian ibiliaz.
- LUTXI —Zurea dana, nerea ere bai. Jan kontuan ez naiz beñere izan mizkindol. Alkatekin bizi geran befogeta zazpi urtetan ezagutzeko aña beta izan dezu.
- XANTI —Ondotxo ezagutzen zaitut ezagutzen zaitudanez. Bai! Nere atsoa aldamenean ez banu zer izango litzake nitzaz?
- LUTXI —Ba-dakizu amona zafa deitza ez zaidala atsegin. Izen itxusia da.
- XANTI —Zuk aitona esaten didazu ba.
- LUTXI —Ez da berdin. Andrea naizen aldetik, losintxa pizka bat zor zait.
- XANTI —Ara bestea; ogei urteko neskatxa gaztea.
- LUTXI —Zu baño gazteagoa naiz beñepin! sei urtez.
- XANTI —Bai, bai, egia da. Alaz guztiaz irurogeitamar urtetik gorakoa, maite.
- LUTXI —Ez dizkit iñork ofenbeste ematen. Ez da ala?
- XANTI —Baietz esatea nai zuk, goizolanda. Aiton elbafi onen itz goxoak entzun nai oraindik. Ez dizkitzut gutxi esan gere bizi guzian ta.
- LUTXI —Orixe bai. Ortan galai ta gustagafi izan zera (*Xantik sudurpekkoa kiskurtzen du*) Emakumezkoai gauza atsegiñak esaten ezbestelakoa. Ao zuria! Iñoliz soñeko beñirik egiten ba'nun bereala kontun erortzen ziñan.
- XANTI —Ori bai, ta ez nizun utziko gaur dan egunean bezela ile motzaz ibiltzen.
- LUTXI —Ez da nik ere bizafik gabe ume baten gixan. Ondo eman ere.
- XANTI —Bearko egin zuk nai dezuna. Goxo itzezin bañan beñiarekin atera.
- XANTI —Nik agintzen nuala uste, ta orain ikusten det, zartuta gero, zure borondatea izan dala emen nagusi.
- LUTXI —Keja zaitte. Ez al gera ba, zorientsu bizi izan? Ez al degu ondo pasa? Pobre gaudela, beartsu, orixe bai; suerte txafaren mendean onfau, esku garbiak izan ditugulako beti.

- 12.000 efeal efenta ba-genuen lanari utzi zenionean.
- XANTI Ondo kostata irabaziak gañera. Efezago jan dizkigute zital alenak ez bestenak.
- LUTXI --Ori esan. (*patatak zuritzen ari dala*) Adierazi izan ba'zidaten, gauza ez naizenean, neronek patatak zuritu bearko nituala; neronek garbitasuna egin, zentimoa-ri begira ibili ondoren, ta emen ganbara ontan bizi-beafa izango nuala, ez nun sinistuko. Ta au gutxi ez dala, semeak kanpoan eta alaba Ameriketara ezkondua.
- XANTI --Mixerri asko ikusten ura ere.
- LUTXI --Semeak ere ez dira askoz obeto bizi (*Ixilunetxoa*) Bizimañak lanak ematen ditu.
- XANTI --Atoz, atoz, nere ondoan ikusi nai zaitut.
- LUTXI --A Xanti! (*onek eskutik eltzen dio*) Utzi zaidazu, patata auek zuritzez buka bear det-eta.
- XANTI --Oraintxe elkarenganako maitasuna besterik ez zaigu gelditzen. Ofatiokan ez uste izan zu kalean zabilzanean ni emen gogaitzen naizela. Ez. Ezin ibili nitke bañan burua arin dijoakit. Elkarfekin daramazkigun urteak oroitzen zaizkit. Eraman ditugun lan eta nekeak, beti elkarfekin, idiak buztafian lotuta dauden antzo.
- LUTXI --Lanak?, ez txikiak gañera.
- XANTI --Zer egingo genuen bada bultza, tira, semeak auffera ateratzeagatik. Inoiz asefatu ere egin giñan. Ezkon befietan, gero baño geiago.
- LUTXI --Azkenerako elkafen antzekoak jafi giñan.
- XANTI --Aufak azitzeak eman dizkigun lanak!
- LUTXI --Aztu ere egin zaizkit. Ortaz pensatzen jartzen nalzanean aufak batean aundi ta txiki ikusten ditut. Aguro ta astiro lgarotzen da bizia. Ufuti ta bertan (*urbil*) ikusten ditut gauzak.
- XANTI --Bai, ufuti ta bertan. Batzuetan naigabetua ta bes-tetan pozik. Au bizia! Oriek izaten dira nere otoitzak. Etxekoandre!... zuk efezatzen ez dedala esan afen. Zuk ni maizago konfesatu bear nintzakela diozu. Pazkoazkoa ez alda naikoa. Ori ere zuk naidezunean egi-ten degu. Zure esaneko beti....
- LUTXI --Bai baña,....
- XANTI --Zer bai baña, daramakigun bizimoduagatik, zer nai dezu nik apaizari esatea; sekulan ez diot inñori txan-

pon bat ostu, ez diot lñori kalterik egin; ez zaitut beñere ingañatu izan. Jaungoikoari eskatzen diodan guztia, il nadinean zure aldamenen izatea da... Nere andrea-
ren ondoan, bai. Zer dezu Lutxi, negar egiten al dezu?

LUTXI

—Maitasuna da, Xanti, maitasuna. Gaztetan esan izan ba-zidaten befogeitamar urte ondoren ezkongaitan bañan geiago elkar maite bear genula ez nun sinistuko. Zartzaroak alaitasun gabeko bizimodua dirudi. Guk izan ditugun, eriotz, zoritxar, galera, ta orain bes-
ten efukiz bizi izatea, etxe ontan... alaz guztiz zoriontsu gera, ez da ala? Alaitasun gabeko zoriona.

XANTI

—Ai! Lutxi!

LUTXI

—Bai gizona bai, patatak zuritzea zuretzat izan ezke-
ro atsegin zait. Egia, batzuetan ernegatzen jartzen nai-
zela; aldi batean azkazalak orain baño geixego ar-
duratzen nituala, ikustekoak izaten nituan. (*Itz auek esandakoan, labana utzi, patatak eltzean sartu ta ur pixka batekin eskuak garbi bitza*). Zenbait egunetan neka-neka eginda gelditzen naiz. Irurogeitamar urteak gañean.

Bañan zutaz ari naizenean jardunean, ezkonberietan bezin gazte senti det nere burua. Afa zaitudala derit-
zait garbiketa egiten dizutelarik.

Aurtxoak ainbeste maite izan ditut, ta orain zu zaitut aur, anal, senar ta aitona. (*laztanduaz*) Patatatxoak egosten jafi ditzadan (*laketan ari dala estufa gañeko eltzera bota bitza*) ta kontuak ere egin bear ditut, be-
reala, bestela nere dirua zertan gastatu dedan aztutzen zait. (*Zoñoa zabalduaz*) Ona emen beko dendan eman didaten eskutitza, ez nintzan gogoratzen.

XANTI

—Zeñena da?

LUTXI

—Ez dakit bada, betaufekorik gabe bai nengon. (*Ira-
kufi naiean begira bezato*) Alpefik. Ez det ezer ikus-
ten. (*Inguruan miatuaz*) Nun ote dira nere betaufe-
koak? Au lana, betaufekoak jafi beaño!

XANTI

—Emaidazu eskutitz ori. Ameriketako señoa ote dakar? (*eskuratuaz*) Ez, efi-bafukoa da. Bertatik bidalia. Ez det letra ezagutzen.

LUTXI

—(*urduri*) Idiki zazu, bada aguro.

XANTI

—Ez ditugu ainbeste artzen; ba-degu beta.

- LUTXI —(*urduri*) Asko artzen zenitun garalean berdiña ziñan. Beti luzatzen: pixkana pixkana gauzak.
- XANTI —Ez bai naiz zu bezelakoa, maite; ni ertilari fiña izaki. Zu jan gosea. Goxokiak norbaitek ematen ba'zizkigun nereak gorde bear izaten nitun ez ba'zenizkidan jango.
- LUTXI —Begira, sutan jartzen nazu ofelako patxarakin. Nere betaufekoak arki al ba'nitzake, eskutitz ori laister irakufiko nuke.
- XANTI —Ez asefatu, Lutxi; irikitsera noa. (*idikiatz*): Besne'neko andrearena da. Efenta ordaintzen digun señorarena. (*irakurtzen dijoala arpegia zurbiltzen dijoakio nalgabe ximikoa arturik*).
- LUTXI —Zer dio? (*Ez du erantzuten, itzik gabe bezela gelditu da esku artean eskutitza duala*) Zer dezu? Zer dio D.^a Rita'k? Itzegin zazu. Ez zaidazula itxoïn-arazi ofenbeste. Xanti ikaratzen nazu ta ez zait komeni.
(*Xanti'k itzegin nai luke bañan ezin. Eglñaletun zerbait dio:*)
- XANTI —E...zin esan det.
- LILI —(*eskua mantaleko zakeltxoan sar beza sudur zapia atera ta onekin bekokiko izardia igurtziatz. Sukur-zapia bere lekuan sartzerakoan, betaufekoak arkitzen ditu*) Nere betaufekoak! (*Bereala sudur-gañean jarri bitza ta eskutitza batetik bestera irakurtzen asten da*). Bañan Xanti? au ezin ditekena da? gu elkafengandik berezi? Ikusiko litzake! Ez nuen ondo irakufiko.
- XANTI —Bai, astiro, astiro irakufi zazu, asleratik.
- LUTXI —“*Jauna: gaurko eguncan ofenbeste dira lagundu bear zaien beartsuak....*”
- XANTI —(*Etenaz*) Beartsuak, karidadea!
- LUTXI —Bal, aberatsak efaz esaten dute. Jarai dezagun: “*lagundu bear zaien beartsuak, guzientzako dirua iritxi dedin ondo partitu beafa dago. Zuei ordaintzen dizutedan etxe-efenta ez da naitanaiezko, ta uste det biok mixerikordin obeto izango ziñatekela*” (*etenaz*) Xanti, entzun al dezu? Mixerikordian, efuki-etxean.
- XANTI — Azkena ikusiko dezu.
- LUTXI —“*Dituzuten urtetan efuki-etxean obeto zainduak segurantziz gelagorekin izango zerate zuen etxean baño. Zer egin bear*”

zenduteke bitakon bat gaxotuko ba'litz? (*Astiro irakuriaz*)
O! Egia da' elkarëkin ezin egongo zeratela" Elkarëkin ez
Xanti? Arautegiak ez du uzten senar-emazteak elkarëkin,
egon ditezen.

XANTI —Pobriai edozein gauza esaten zaio.

LUTXI —Bai pobriak.... (*Irakuriaz beñiro*) "gizonezkoak alde
batean ta emakumezkoak bestean" Bañan elkarëkin bil-
duak egon da zeñi egiten diogu kalte? Ni beti zure-
kin joango naiz. Nere aguretxoarekin. Nork kontu ar-
tuko dizu nik bezela? Zure gauzak iñork ni beste ba-
lekizke bezela. A! Xanti. Berezi!

XANTI —(*Ametsetan bezela*) Zer gelago dio karta ofek.

LUTXI —(*Irakuriaz*) "Alare egun batzuetan eta ordu batzuetan
ikusit zindezteke" (*etenaz*) Au burla egitea da (*Bat ba-
tean biotz gañean eskua jariaz*) A! A!

XANTI —Zer dezu, nere izafa?

LUTXI —(*Berangana joan naiaz sila gañean erortzen da*) Ai!
Ez nago ondo. Atoz Xanti atozkit. Biotzean min. Gaiz-
ki nago Jesus. Atoz aguro. Berezi!

XANTI —Nola ordea, ezin mugit naizela ba-dakizu ta Lutxi, Lutxi
zer gertatzen zaizu?

LUTXI —(*Antziz*) Ai, Ez zaitut utzi nai.... Jaungoiko maitea!
(*Burua makurtu ta luñera erori bedi*)

XANTI —Lutxi! Lutxi! Bañan ilko ote zera? (*Etsita ea entzu-
ten ez xaiola*) Lutxi! Lutxi! afen (*sotinka*) Erantzun
zadazu!

ZAPIA.

“ IRÍ-ITZALDIA ”

(EZTAIETARAKO)

Antziñako “Joyeux Sermon de Mariage” batetik euskeraz

A. Labayen'ek itzulia.

“*Libertas est, etcetera*”....

.
Au dezute latiñera
Jafia emen eskuan
Damakidan liburuan.
Gutunak onela dío:
“Maite dunak Pozkario
Burua dezala aske”.
Gezufik gabe nizuke
Ondasun guzletarik
Ori dala aundienik.
Jendeak lo ez ba'leude
Ba'lira etxeko-alde
Libre bízi zeratenok
Emakume gizezokok

Ez ziñateke lotuko
Uztañian betirako
Zoritxañeko benetan
“*De profundis*” beařetan.

—
“*Libertas est, etcetera....*”

.
Au dezute latiñera
Len esan dedan, bezela.
Jaun andreak gaur bestela
Mintzatzera noazute
Gogoan artu zazute.

Ez dala gizon azkařik
Ezkontzera dijoanik.
Esposatzen dan guzia
Dala txit txoro aundia.
Jakin nai dezu zergatik?
Bi miñ ařazoigatik.

Bat: etxea bear dezu.
Bigañena: bete zazu
Oazur, seaska, afopez,
Pixoial, zatar, maĩndirez
Ontzi, eltze, bufuntzali
Azpil, aizto eta txali.

Sula, pitxar ta tiñaku
Pertza, zartagi, kaiku.
Armaio, apal eta mai
Kutxa, zizañuak nun nai.
Aizkora, mañu, xardako,
Eta beste tresna asko.
Krispi, matxarda, aspo, laratz
Ezpal, egur eta ařikatz
Ori ez bada naikoa
Gerora gañerakoa.

Izan bear dezu zer jan,
Onen ufengo zer edan.
Ogi, arto, babuñunak
Ardo, sagardo onenak.
Aragi, okel, zeziña
Gatz, olio ta ozpiña.
Tipul, pefeji, batxuri
Txintxilik beti gatzari.
Esneki, afaultz, afaiak
Maite ditu tripazalak,
Krisalu, kinke, kandela,
Nola argitu bestela?
Intxaur, patata, ufa, gaztain
Ganbara betetzeko lain.

Seme-alabak zaintzeko
Senideari eusteko
Neskame, mofoi, iñude.
Ta aukeran ba'leude!
Deus baldakite egiten?
Ez da aufai lo-arazten!
Ontaz gañera, ikulua
Lan ematen dun lekua.

Olo, olar, txita, ate
Txerri, zefama, apote
Astozar, zamari, zaldi
Auntz, aker, arkume, ardi.
Iru eta iru dira sei
Beste amafez amasel
Ainbesteraño abere
Ezin kontaitut beñere.

Aitatzea zaizkit aztu,
Bi zakur, amaika katu
Oiek danak nork mantendu?
Ezkondu zaite, ezkondu...

—
Azkenik emaztetxoak
Eskatzen dizkizuanak:
Soñeko, ator, gefiko
Galtzerdi ta oñetako

Gonape, pijama, lafu
Ez eman ezkeru, mafu!
Titare, oratz, orazi
Eraztun, galartsu, pitxi
Usainki-goxo, ispilu
Esku-bete edergalu
Guzietarik jakiña
Andre aundizkiak aña.
Zerbait ukatu ezkeru
Zaputzakin egunero
Ark nai duna ez egitnik
Ez da etxean pakerik.

Esan oi da esposatu
Askoz obe da urkatu.

Alare senafak iñoiz
Zigofa artuta jipoiz
Andrea astintzen ba'du
Ango istilu ta oiu
Malkoak derizkiela
Asten dira bereala
Negar, kafatxi, sotinka
Ai! Ai! auzoari deika.
Au da ezin ikusia!
Ori da bekaizkeria!
Nola nai den afenkura
Buruaste ta ardura
Ez bada inpernu bera
Ba-zoazteke aufera.

Ez dira olek bakañik
geiago ba-da oraindik:
Etxea ordain ezazu
Bestena baldin ba-dezu
Ez ba-zera maister beriz
Nagusi ba-zera.... bost aldiz
Zerga, petxa, mozkiñak
A zer nolako lzañak!
Paga, iozu arotzari,

Igeltzero, zurgiñari
Dirua xautu beafa
Ta tximiniko keafa
Ez da amaitzen beingoan
Esposatuen etxean.

Seme-alabak azitzen,
Ez dute beti asmatzen
Ta... alabak ezkontzea
Auxen ba-dala nekea.
Semearekin gaitzerdi
Lanean ba-dira ari.
Bizkafari zama ona
Gizonak bota diona.
Guzi-guzia zergatik?
Andrea artzeagatik.

Bizitzen asi ezkeru
(urte asko dira gero,)
Ez det agirik ikusi
Ezkontza duna onetsi,
Jakintsuak idatzi du
Gizona ez adi ezkondu
Zer uste zala eskontza?
Ea beti gauza motza.
Burua biurtzea gaxo
Pozari eitea, Kaxo!

Jaunari eska daiogun
Baldin ba-gera sentzudun
Ez galtezen ortan eror....
Bizitzeko zor eta lor....

.

“AZKEN TOPA”

Edan zagon! Itz edefa,
Mendian pozik epefa,
Altxatuaz edontzia
Txasta zagon edaria.

Ezkon-beñen osagañari, topa!
Beñiz ere merezi baldute, topa!



NESKAMEAREN MARMARAK

Luzear'ek idatzitako bakafizketa.

Aufeneko aldiz, Arzeluz'tar Amaletxo'k Poxpolifetan egiña.

(Autsak ateratzeko zatar batekin, bizi-bizi sarturik)

Ume sabelberatuak alenak! Luřetik arabete jasotzen ez, ta olen pantasia. Ia noski ni nor naizen olei ezer agintzeko! Lepezuřa puskatuko al dute.... Oraintxe buruz gain egiřerazi didate neri beintzat eta, dabiltzala ipurdiz gora ere nai badute. Beren amona zanak agindu dezaiotela.

(Alki ta mai batzuen autsak astintzen asi, ta bereala geldituaz)

Okefena ez da ordea ori. Gero "señorita" etoři orduko, mokoa kanabete luxatuta, or asiko zait:

"Roxita, pero en toabia las kamas sin aser?"

Efex egiten dizkin arek.

Amafetan jeiki. Amaikaterdiak arte; bañua dala, gosaria dala, españak piper gořiz ta begiak zikulusaltsa beltzez pintatzia dala, arpegia autsez josi, gefia extutu, bere xanko politai (tanbor makilak dirudite gerol), bere xanko politai begiratu, gonak pilin bat goraxeago jaso, ixpilu aũfean (Jesus, ixpilu aũfean... oiek komeriak!) onera begiratu, ara begiratu, au ikutu, ura ikutu... atzekoaldiak ematen dizkion lanak...! aunditxua iruditzen nunbait... ta igurtzi ta igurtzi, igurtzi ta igurtzi, "limatu" naian bezela. "Linea" ez galdu nai ba!

Ofenbeste pantasi gabe begiratzen zigutenan beintzat guri mutil mořosko bapo askoak! Esango nuke...

Ta bera "mariya panpalona" baño afoago, jo ara ta tira onera dabilen bitartean, autsak atera, lufarri argizala eman, gosariak jafi, aufak jantzi... ta

jantzitzea naikoa ezatala, bateri mukiak atera, beste-
teari atzea garbitu, okefik egin ez dezaten zaitu,
“kontu! txiki, atoz onera, ez igo ofera, erori egingo ze-
rara”. au pix egiten jari, ofen lotsagabekeriak entzun,
suari begiratu, eltzeari kontu aritu... ta bera etortzen
danerako kuartuak egin ta maia pronto jari. Lau es-
ku ta zorizi zanho ditudala aste ote du “Mari Li-
dingax” ofek!

Ta bereak aundiagoak! Lengoañ esan etzidan ba:

“Ai, Roxita! Lastima de lombre. No merese Roxita.
España eso asi debia ser!” España alajaña! Artuko li-
ken berak ni bezelako “españa” izatea, anima salbo, ba-
kalo exufa ematen din ta).

Gero... batean eltzekaiak gatzak eztaukala, beste-
tan patatak peatu egin zaizkidala, au efe egin dala
edo bestea egosi ezatala... Jakiña ba... Ta ariñu egiten
dira! Toki guzitan egotea nai al dute ba? Ni Jaun-
goikoa banitz, entzake, sarduzen egongo ba, ofa!

Señoritua, bai... ai, señoritua! Ori bestelakortu ea. Ori
gizon moñonua! Lastima odelako andre xuxtanti ga-
bekoakin ezkondua izatea. Ezkongai egon baltz, orixe
bai izango zala nere gustokoa. A zer pareja egingo
genuan! Pareja ideal! Ia... ni Roxita, ta bera Kristo
bal.

(Lari-lari autsak biziki astunduaz)

¡Ene, Jesus maitea! Atia zan.. Ta kuartuak egin
gabe, maia jartzeko, ta mineak auzuan... Xexenak
izango dira gaur gure etxean... Arantzazu'ko Ama ni-
tzaz eruki zait.

(Sartzen da irten baño bizitago)

AMATA

Gogai bat, abertzaletasuna, kristautasuna, esate baterako, sartu nai ba'da, antzerkitik ixuri bear du itufitik ura bezela. Gañera zuzenean baño zearka obe; itufia ikusten ez dala.

Gure gauzak; izkuntza, oitura, izate osoa maite arazten dun antzerkia, aberkoia da besterik gabe. Lana ondo egiña bedi ta gañerako elburuak iritxiko ditu. Zenbat eta obeto tajutua izan, orduan eta bafenago gogaiak sartuko ditu. Antzerki batek, ostera, abertzale purukatua izanagatik, luña joko du ez ba'dago, teatro arauz ezagueraz, graziz egiña. Abertzale befi gutxi egingo ditu.

Euskal Antzertia jaso zangun eta batera jasoko degu Abefia.

Azkenik, ez aztu beñere, antzerkia ondo antzeztua izan bear dula, ondo ta txukun azaldua. Zer balio du bestela?

Onetzaz aufeko zenbaki batean jardun giñan eta orduan esandakoari eusten gatzai.

Mantxingori.

"Buruzagiak"

"*Euzkerea*" aldizkingi ederak asi zan lanari jafaiturik, Pearse irlandatafaren "*The Singer*" antzerkia euskeratu digu. Gure azken zenbakian adierazi gendun Sota Aburto jaunak erderaz itzulia zala, izentzat; "*Caudillos*" emanik. Orain itzulpen ontatlik, Altuna jaunak euskeraz jafi du "*Buruzagiak*" deritzala. Gure batzoki ta euzko-etxeetan gogoz antzeztua izango dalakoan gaude.

Mendigoizaleak bai'ditu antzez-lagun....

"Biotz-Ameskoña"

Oraintsu-orain jaso degu beste antzerki bat, erderaz idatzia bañan euskal kutsuduna; eresi ta guzti gañera. Oso ederki argitaratua dago Bermeo'ko Gaubeka etxean. Antzerki onen egile Luis Villalonga jauna da. Bermeo'ko *Antzoki-Berín* lenengoz antzeztu zuten aurten libeltzaren 13'gafenean.

Blotz-ameskoña edo "El corazón de *Victor Irueta*" onentzako edergafi ta apainketak Uzelai margolariak egitu zitun.

Akatz aundi bat du guretzat antzerki onek; erdera mordo-luan idatzia izatea; ez eusker-a ta ez erdera; ez aragi ta ez a'ai; euskalduna lotsagafi azaltzea. Gauza itxusi ta entzungaitza gañera. Onela ezin egin diteke lan ertitsurik... ta gutxiago efi altxagañirik...



S. Prantzizko'ren bizitza

Donostia'ko Euzko-Abesbatza'koak ikasten asiak dira:

“*La Vie profonde de St. François*”, eresi-antzerkia. Izkia Gheon idazle parantzetafena da, Sabiaga euskaltzale jakintsuak euskeraz itzulia. Eresi ta musika zati guziak beriz gure A. Donosti ospatsuak sortu ta landuak.

Lan eder eta sakon au datofen udazkenean abestu nai dute Donostia'ko Victoria-Eugenia antzokian.

Zer-nola geiago ufena adieraziko ditugu.



8 PESETA URTEKO!

besterik ez da ordaindu bear ANTZERTI'ren

arpidedun izateko. Nai duenak, lenbailen

jakin-erazi, laguntza bear degu-ta.

APAIN ETA

EUSKALDUN ERARA

IBILINAI BA-DEZUTE

ELOSEGI' ren

TXAPELA DA

ONENA

